

Topaguneak irakurzaletasuna sustatzeko ekimena abiatuko du

Liburuaren Egunarekin bat eginez hasiko du liburuak irakurtzeko eta oparitzeko kanpaina zenbait herritan

Irune Berro

Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko xedearekin, Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina abian jarriko du, aurten bigarren aldiz, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak. Euskal Herriko 17 herritan garatuko du ekimena, gaur hasita, Liburuaren Nazioarteko Egunean.

Manu Moreno Topaguneko kultura teknikariak azaldu duenez, irakurtzeko zaletasuna sustatzea da kanpainaren helburu nagusia. Baina, horrekin batera, gozamena partekatzeko gonbita egin nahi diete ekimenaren sustatzaileek euskarazko liburuaren irakurleei. Horretarako, literatur obrak erosteko deskontu txartelak emango dizkiete liburutegietan euskarazko liburuak maileguan hartzen dituztenei. Eta deskontu txartel horiekin, hitzartutako liburu dendetan euskarazko liburuak erosi ahal izango dituzte. Erositako liburu horiek inguruko jendeari, senide, lagun edo lankideei oparitzea da kanpainaren antolatzaileek proposatu duten azken urratsa. Helburua: Euskarazko liburuak eta irakurketak dakarren gozamena ahalik eta jende gehienarengana iristea. Liburu gehiago irakurtzearen truke, liburuak oparituko ditugu, adierazi du Morenok.

Tokian tokiko euskara elkartearen laguntzarekin, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hamazazpi herritan egingo du Topaguneak Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Bizkaian, Santurtzin, Bilbon, Igorren, Ermuan, Basaurin, Iurretan eta Zaldibarren jarriko dute martxan ekimena; Gipuzkoan, Azkoitian, Bergaran eta Deban burutuko dute; eta, Nafarroan, Irurtzunen, Etxarrin eta Altsasun.

EHUN LIBURUKO ZERRENDA.

Uxue Alberdi idazleak Topagunearen ekimena interesgarria eta egokia dela pentsatzen du. Interesgarria, liburugintzaren sektoreko zenbait eragileren elkarreragina bultzatzen baitu; liburutegi, liburu denda eta irakurleak barneratzen ditu kanpainak. Eta egokia, euskarazko liburugintzaren ekoizpenaren gehiena Durangoko Azokari begira egiten baita, baina udan irakurtzeko astia izaten du jendeak, eta, beraz, udaberria sasoi egokia da kanpaina egiteko.

Irakurri, gozatu eta oparitu ekimenaren antolatzaileek ehun liburuko zerrenda proposatu dute. Patxi Zubizarretak iaz osatutakoa eguneratu dute, aspaldiko liburuak eta gaurkoak kontuan hartuta; estilo guztietakoak eta egile askorenak bilduta. Baina liburu horiez gain, euskarazko edozein obra erosi ahal izango dute ekimenean parte hartzen dutenek.

Liburu azokak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak egingo dira hainbat lekutan.

Ohi bezala, ekitaldi ugari antolatu dira aurten ere Euskal Herrian -Hego Euskal Herriko hiriburuetan batez ere- Liburuaren Nazioarteko Egunaren ospakizunekin lotuta. Donostiako Gipuzkoako plazak eta Bilboko Berastegi kaleak urteroko azoka hartuko dute gaur, eta liburuak %10 merkeago erosteko aukera izango da. Antzeko gisan, Iruñean Liburuen eta Loreen Festa egingo da gaur hasi eta larunbata arte, autobusen geltoki zaharrean. Gasteizen aurretik egin da azoka, asteburuan, Plaza Berrian.

Donostiako azokako karpan Udal Txistularien Banda, Maite Franko ipuin kontalaria eta Iñaki Martiarena Mattin ilustratzailea ariko dira, besteak beste, eguerdi arte, eta hainbat liburu aurkeztuko dira, Harkaitz Cano idazlearen eta Iñaki G. Holgado ilustratzailearen Piztia otzanak, besteak beste.

Bilbon, azokaren aurretik egin dira hainbat ekitaldi. Horietako bat Paperezko Eskuargien banaketa izan da: Miren Agur Meabe, Willy Uribe eta Javier Reverte idazleek eta Bilbao eta Ría del Ocio argitalpenek jaso dituzte aurten.

Iruñeko Liburuen eta Loreen Festan ere musika emanaldiak, ipuin kontaketak eta bestelako emanaldiak izango dira.

Idazle ezagunen hitzaldiak eta betelako agerraldiak ere izango dira egunotan: Adibidez, Koldo Izagirrek aurkeztuko du Charles de Costerren Ulenspiegelen elezaharra liburua gaur, 20:00etan, Larrabetzuko (Bizkaia) Anguleri kultur etxean, eta bihar, 20:00etan, Gabriel Arestiren Harri eta herri poema liburuaz mintzatuko da, Iruñeko Erraldoien Txokoan. Felipe Juaristik eta Iñaki Aldekoak, berriz, Juan San Martinen eta beste idazle batzuen obren errezitaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, Eibarko Juan San Martin liburutegian.